

IRAKURLE: Oraingo ale onetan gauza berezi bat aurkituko dozu: aldizkaritxoaren orrialde guztiak arlo beraz diardue, Oestafrikara urtero joaten diran euskal arraintzaleen arloaz. Gure erabaki onegaz zu naigabetuteko bildurra izan dogu, baiña, azkenez, berori iruditu jaku egokiena.

Izan be, arraintzale orreek gutarikoak dira, euskaldunak eta bizkaitarrak geienak. Ezin doguz aaztu, ba. Eurak egin oi dabent guztia, gure izen on edo txarrerako izango da, Bizkaiaren anditasunerako edo lotsarako. Orregaitik, ezin gara egon euren egiteak ezagutu barik, euren estutasun ta gora-beera danak ezagutu barik. Al dogun guztia egin bear dogu gure anai orreek aurrerapen geienak izan daiezan, ta euren bizi-modua obeagotu ta leundu daitean. Eureri emondako tratu txar guztiak ez doguz guregan sentiduko?

Baiña, batez be, kristiñau garanez, euren erlijiozko problema andiak ezagutu bear doguz. Jaungoikoak galdu ez daiala, bein da barriz, joko au.



Letra txikiz idatzitakoa A. IMANOL BERRIATUA-rena da. Eskerrik-asko berari.

Ba-dakigu zuen arteko askotxuri bidegabekoa iruditen jakela A. Imanol-en idazerea, erderazko berba larregi erabilten dauzalako. Baiña, guk, zuen eritxi guztiak errespetatuz, oar bi egin gura deutsueguz onetzaz:

Aldizkariak beti errespetatuko dau bako txaren idazerea. Idazlea —eta ez aldizkaria— da artikuloen egille bakarra.

Fuskal idazleen artean, A. Imanol ezta edonor. Askok, ixildu bear giñake zietz bere aurrean. Eta besteak, ager deiguela guztiori euren idazerea, eta guk jakingo dogu nori jarraitu. Baiña, MESEDEZ, aldendu alkar gorrotoak, orrekaz miñ asko egiten deutsugu euskerari-ta.

IX URTEA N.º 102

Dep. Legal SS. 1092-1959
Suplemento de la hoja
Anaitasuna de Guipúzcoa
BAGILLA (6) 1963.

ANAITASUNA

EUSKAL ARRAINTZALEEN

Euskalerrian bizi gareanok

ez dakigu ondo

an zer jazoten dan

Euskalerrian bizi zareenok, ez dakizue ondo emen zer pasetan dan. Periodistak ez deutsuee egia osoa esaten. Gauza asko itxiten ditue tinteruan, periodikoan ipiñi barik. Bearbada, eurak-bere ez dakie ondo emengo situaziñoa; edo, jakifia-rren, bildur dira dana esaten.


Orain iru urte, sei kronika eskribidu nituan Bilbaoko *Correo Español*-en. Iñoren bildur barik idatzi nebazan. Irakurlerik Geyenak, pozarren leidu zituen nire artikulua. Baiña baten bat, betiko asarratu zan nigaz arrezkero.

Igaz, emengo situaziñoaren gaiñean berba egiten aintzan Bermeoko pulpituari. Ez eusten bigarren berbaldia egiten itxi. Egia, askotan, garratza izaten da. Ori gorabera, Aita Santuak sarritan esan deutsuee periodisteri, beti eta gauza guztien gaiñetik egia esateko.

Emen Oestafrikan, azkenengo zazpi urte ontan aurrera-kuntza aundiak egin dira. Ori ezin leiteke ukatu. Baiña oraindiño asko falta da, gauzak bear dan moduan egoteko.

Gaixoen etxea dala, arraintzaleen errekreaziño toki dala, kontratua dala, Madrilleko laguntziñoa dala, erosle ta saltzailleen arteko errelaziñoak direla ta ez tirela, gauza asko dagoz emen, obeto egon bear leukeenak.

Emen eta edonon, gauzak ondo jartzeko, fatore asko ipiñi bear dira lanean. Eta fatore orren artean, periodikoetan idazteko libertadea guztiz da inportantea. Egia esateko askatasuna, Jaungoikoak emoniko eskubidea, ze gauza ederra!



* **PERIODISTAK BILDUR DIRA DANA ESATEN?**

* **EGIA ASKOTAN GARRATZA DA**

Freetown-en, playa eder bat dago. Ondar-tza zoragarri bat. Bazter baten, klub elegante bi ikusten dira. Euretarike batera joan ginean lau patroiz eta neu. Pozik egozan lau patroyak. Eurenentzat, amaitu zan aurtengo atunetea Oes-tafrikan. Ille bi l'ardi igaro zituen bertan arraintzan; eta urrengo egunean, febreruaren amarran, urtengo eben Bermeorantz. Erre-ntzeko batzuk edaten gengoan bitartean, onen antzeko alkarberbetea euki genduan.

patroi batzukaz berbetan

—Zez? Pozik zoaze etxera? —gal-
detu neutsen nik, ANAITASUNA-n
litzetako asmoagaz.

—Zenbat tonelada atrapa dozue
ba?

—Zeuek bakarrik zoaze etxera?

—Zergaitik priesa ori? Ez dago
men irabazkuntzarik ala?

—Olan bada, aurten zegaitik zoa-
de Bermeora zezeillaren asikera ba-
rrian, illaren akaburarte itxaron
barik?

—Segi, segi.

—Eta zuok, arraintzaleok, gauza
kuztiak egin dozuez ondo?

—Bai orixe. Naikoa arraiña atrapa dogu, eta
orain tiki taka goaz Bermeora.

—Eun ta berrogetamabostna. Ille t'erdirako,
arain asko. Aurten gaiñera, iñoizko preziorik onena
dauko arraiñak.

—Ez. Beste barku asko-bere bai. Berrogetabost
untzi etorri gara aurten Oestafrikara: ogetamasei
Bermeotik, sei Lekeitiotik, bat Motrikotik, bat On-
darrabitik eta beste bat Vigotik. Emen, amasei ba-
karrik geratuko dira. Beste guztiak, ogetabederatzi,
danak Bermeokoak, etxera goaz.

—Bai, ba-dago. Baiña alan ta guzti-bere, gure
mandako itxasoan emen baiño geyago irabazteko es-
perantzea daukogu antxobatan. Ba-daki berorrek:
azkenengo urteotan, bokartak asko balio dau Espa-
ñian; eta gaiñera, ango ibilkerea emengoa baiño
milla bidar ohea da arraintzaleentzat. Au ikusita
dago. Ona, goizago etorri bear da; urrirako ona
etorri, eta zezeillaren (febreruaren) azkenetan ba-
rriro etxera.

—A! Aurton emen, gauza txar asko jazo dira. Alde
batetik, Amerikanoak, arraiña erosten deuskuenak,
edozelan tratatu gaitue berbaz eta egikeraz. Ez
dakie nortzuk garean. Ez dakie euskaldunak gare-
na. Ez gaitue ezagutzen. Euskaldunak ezin leiteke
jokatu edozelan.

—Guk lauok beñik bein, eta beste batzuk, gure
antzera, diru asko galdu dogu Amerikanoen erruz,
euren ordena okerrakaitik.

—Ez ba, ez ba. Geuk bere artezagoak izan bear
geunke, zuzenagoak, ondraduagoak. Kolaboraziño
geyago euki bear geunke geure artean, eta konfian-
tza geyago alkarrekaz. Berba baten esateko, inpor-
tantzia gelago emon bear geunskioe gizonaren balo-
re moraleri geure bizimodu guzion.

Onen antzeko alkarberbetea euki genduan Bermeoko lau patroyak eta neuk Free-
town-eko playa ertzean, zezeillaren bederatzian, zapatuz, arratsalde beranduan.

OESTAFRIKAKO BARRIAK

ARRAINTZALEAK EZ DABE JAKITEN ZE EGUNETAN BIZI DIRAN BE

Emen, gu gagozan tokian, ozta ozta igarten dira jayegunak. Arraintzale portua, erritik guztiz asago dago. Urrunegi —sei kilometro— bertara oiñez joateko. Katoliko eleiza bi barrik dagoz, eta biak urrun.

Orrezaz gaiñora, jayegunetan-bere, arraintzaleak lanean ibiltzen dira portuan. Eurentzat, egun guztiak dira bardin. Ni emen ez banengo, eta domekan domekan portuan arraintzaleentzako mezea emongo ez baneu, euretatiko askok ez leukee ziur jakingo asteko ze egunetan bizi direan-bere.



Domeketan eta jayegunetan, meza bi beste bat arratsaldean. Lenengoa, goizeko amgoiko mandan, arraintzaleak ez direnentzat, batzen dira arrain fabrikako enpleaduen amanz batzuk. Itxas Apostoladuak ona bialdu ez barik geratuko zan.

Baiña ez pentsa gero, meza ori emotea rikanoak, arraiña erosten deuskuenak, gii gaiñean zeredozer esan neutsuen aurreko deutsuet, niri neuri, neure lanean, ez deus

Euren artean, danak ez dira bardiñak in nak beñik bein, ez dabe aintzat artzen elein datez, obeto arraintzaleakaz ona ez banentor lak ez dabe ezer balio urrean.

Nik len, eritxi ona euki izan dot Amer Cuban Norteamerikako kapitalisten artean neure oneritxi au aldatuten asi naiz, emengo baltzeri, Euskaldun arraintzaleeri eta neuri et

Aurten ona etorri nintzanean, leku egoki emoteko arraintzaleak ez direnentzat. Emen daukez fabrikako jentearantzat. Etxe batzuk barik. Nik olako etxetxu bat eskatu neutsen teko. Ta eurak ukatu egin eusten, ta barr Jaungoikoarentzat leku guztiak egokiak zirea

AMERIKAN EUSKAL - ARRAI

BERBA GOGOR BATZUK EUSKALDUNENTZAT

Entzun orain zer jazo jatan beste baten fabrikako bigarren ugazabagaz.

Emen, zuek ba-dakizue, etxe bat daukogu gaixoentzat. Etxe ori Amerikanoak itxi euskuen; baiña ondo ornidu barik: oge gitxi, maya gitxi, jezarleku gitxi.

Asikeran, gaixo askorik ez egoan ezker, zelan edo alan arreglatu giñean. Baiña gero, gaixoak geitu zireanean —unada baten ogetairu gizon batu gintzazan—, batzuk bearen gaiñean lo egiten eben eta zutunik jan. Orduan, joan nintzan ni ugazabagana eta eskatu neutsazan mesedez iru oge ta sei jezarleku.

—Ez, zueri bapez —erantzun eustan berak—. Bermeen, oge bana ta jezarleku bana ba-deukozuez ala? Gaixoen etxean, palazio baten lez bizi zaree zuek. Ez da egia ala?

—Ez —erantzun neutsan erdi asarre—. Ori ez da egia. Bestela, erdu Bermeora. Ikusi gure erria ta arraintzaileen etxeak, eta orduan jakingo dozu zelan bizi garean Euskaldunok. Etxe baten baiño geyagotan telebisiñoa ta guzti ikusiko dozu. Erdu, erdu.

—Ez dot joan gura. Ezagututen dodaz Bermeotarrak eta ez dot euren erria ezagutu nai, euren antzekoa izango da-ta: loya, atlasadua, txarra.


—Oneekaz ez dago zeregiñik —esan neban neure barruan; eta gizonari agur eginda gero, Amerikanoeri geyago ezer ez eskatuteko asmoa artu neban.

bat goizean ta
esten dot, portuaren
baten. Bertan
eta beste banaka
ete guzti ori meza

izan dana. Ame-
deuskue. Onen
Gaurkoan esango
lagunduten.
aginduten dabe-
ma. Euren boron-
z, gauza espiritua-

mezean, amairu urte
oren. Baiña orain,
bertoko langille
uen tratua ikusita.
izan neban mezea
noak, etxe politik
z, zarratuta, inor
ozeke mezea emo-
zantar bat eskiñi,

meza emotea ezta erreza



AK ETA
ALEAK

euskera barik, zertarako euskaldunak izateak?

Gauza gogorak esan deusuedaz. Ez neuka gura Amerikanoak jakin leyezan. Orrexegaitik idazten deusuet kronika au euskeraz.

Gure berbetea zarrak bentaja aundiak daukoz. Ori ondo dakigu Afrikan bizi gareanok. Europa Ozidentalaren biotzean jayoak izanarren, emen ez deusku ifiorik ulertuten.

Itxasoan radiotik gau t'egun egiten dogu euskeraz, ta beste nazifioetako arraintzaleak ez deuskue ezer entenietan. Arratsaldeko seiretan berba egiten dogu portuko Euskaldun errepresentanteagaz, eta bildur barik esaten deusagu geuri bakarrik komenietan jakuna; antxe egoten dira Amerikanoak, radio inguruan, agoa zabalik, kaixu ta artekadu, gure berba ulertu ezifnik. Eurak erdi agindu egin deuskue, portura beifnik bein erderaz egiteko; baiña guk ezetz erantzun deutsegu, ez dogula gure oitura zarra ezegaitik aldatuko, erdere ta inglesa sortu orduko, ba-genbiltzan gu itxasoan euskeraz egiten-da.

Bertoko estranjeruak ez daukotsee Españoleri estimazifio aundirik. Lenegotan, geu-bere Español edo Italianotzat artzen gaitue; baiña gero, gure berbetea ifiondik ifiora ulertuten ez daben lez, nortzuk garen preguntetan asten dira, eta arrezkero beste kontsiderazifio bategaz tratetan gaitue.

Ikusi dozuez, ba, euskerearen bentaja pratikoa. Jaungoikoarren, ez daigun galdu gure euskera maitea. Euskera barik, zertarako balioko leuskigu Euskaldunak izatea? Gure Euskalduntasunak galdu egingo leuke betiko bere errazoi printzipala.

BILDURBAKO ARRAINTZALEAK

Gure untziak, txikiak dira. Txikiagiak Afrikara etorteko. Ez dira emengo klimarako egokiak. Ez dauke barruan bape komodutasunik. Ta alan ta guzti-bere, ona dotoz gure arraintzaleak. Euren meritua, izugarria da.

Amazortzi egun, gitxi gorabera, bear izaten dira bertora eltzeke. Zazpi egun Euskalerritik Canariasera. Canariasen egun bidedo egoten gara, atsedeen pixka bat artzeke eta konpratxu batzuk egiteko. Gero, barrero itxasora; ta lau egun buruan Dakarrera eltzen gara. Orain, sartu-bere ez gara egiten errian. Cabo Verdeko farolaren urretik pasetan gara; eta arrezkero arraintzan asten gara, bost edo sei egunean, beerazka beerazka, Freetownera elduartean.

Urte batzutan eguraldi ona eukiten izan dogu; beste batzutan barriz, guztiz zantarra, batezbera Portugaleko kostatik pasetan garenean. Baiña barkuak, eguraldi onagaz zein txarragaz, asko mobitzen dira. Nik neuk trabesia guztian, ezin izaten dot mezarrik esan egunik geyenetan.

Aurten, PERLA DEL PACIFICO deritxon barkuan etorri nintzan. Sierra Leonatik urre gengoza, gure untziak galdu egin eban errunbua. Lema patroyak —erdalduna bera— ez ekian luzerarik artzen.

Konturatu barik, kantiletik urten genduan; eta urandian sartuta, gero ta geyago barruratu gifiean itxasoan. Egun artan, arraintzu ona egin genduan; eta gu trunkil, geure intxaur azaltxuan, Atlantiko erdian.

Baiña alako baten, arratsalde beranduan, merkante aundi bat pasatu jakun kostadutik. Ondo gomutetan naiz: New Yorkeko matrikulea eukon, eta AFRICAN PILOT izena. Joan zan barkua; urrundu zan apurtxu bat. Baiña gero, bost minutugarrenean, ausi egin eban errumbua eta gureganatz etorten asi zan. Gu arrituta, zergaitik ete zan. Urretu jakun barkua; eta aldarrika asi jakuzan barrukoak, ea galduta gengoanentz, ea laguntziñorik bear genduanetz preguntaka.

- * EUSKALDUNEN UNTZIAK TXIKIAK DIRA
- * EZ DIRA ANGO KLIMARAKO EGOKIAK
- * EZ DAUKE BARRUAN BAPE KOMODUTASUNIK
- * BARKU GALDU BAT



* ZER DIRA?

* GAUR - ARTE GEIENAK ERDELDUNAK DIRA

* ESKOLA BAT BERMION

Aintxiña, egitada aundiak egin zituen Teranova aldera seroitán joaten zirean euskaldun arraintzaleak. Gaur egunean, beste orrenbeste edo geyago egiten dabilta Oestafrikara atunetan datozenak.

Gauza guztiz egokia izango litzake, norbaitek emengo arraintzaleen istoria iñoiz egingo baleu. Benetako istoria baiña. Bere argiune ta baltzuneakaz. Isteria orretan gauza asko agertu litzákez. Gauza onak eta txarrak. Oker ez banago —uxala banengo—, beste gauza askoren artean, auxe agertuko litzake:

Gure arraintzaleak mundu guztiari erakutsi deutsoe, Euskaldunak langille leberrek direala. Euskalerría progresu materialean aurrera doala. Baiña, bearbada, ez deutsoe beste erakutsirik emon. Ta gaurko mundu onek, krisi ikaragarrian dagon mundu onek, beste erakutsi obeak bear ditu. Erri sanoak ikusi gura ditu, espirituz eta kulturaz aberatsak, gaurko soziedade ustel au osatuteko prest dagozanak.

Ea ba, noiz egiten dan istoria ori. Nik neuk, gaurko kronikan eta urrengoetan, neure inguruan pasetan direan gauzak esango deutsuedaz.

LEMA PATROIAK

Ona datozan barkuak, patroí bifa dakarez: lema patroya ta arraintza patroya. Lema patroyak, barkuaren zuzendaritzea dauko. Jabea izan ezarren, bera da legearen aurrean barkuaren erantzunbearra daukona. Berak daroa untzia bear dan tokira. Arraintzako gauzetan ez dauko aginpiderik, nautikako gauzetan baiño.

Arraintza patroya barriz, peskako gauzetan sartzen da. Berak aginduten dau nora joan ta nondik billatu arraiña. Berak gobernetan ditu arraintzako arazo guztiak.

Bizkaiko Itxasoan ibilteko, naikoa da arraintza patroya. Baiña Oestafrikara etorteko, derrigorrekoa da lema patroya; bera barik, ezin leiteke Espaiñiko Finisterretik pasa.

Arraintzearen eboluziño au gure artean gauza barria dan ezkeru, Bermeon lema patroí gitxi egon dira. Gure barkuetako lema patroirik geyenak, kanpotarrak dira, eraldunak dira. Batzuk onak urten dabe. Baiña geyenak, badaezpadakoak; ozta ozta dakie zabalerea artzen eta orrezaz gaiñera, ez dakie euskeraz berba egiten.


Orrexegaitik, Bermeoko Kofradiak patroí eskola bat ipiñi dau Fraille Frantziskanoen komentuan. Eskolea igazko urrian asi zan, berrogetaz ikaslegaz. Maisuak, fraille gazte bi dira: Aita Francisco Arruti ta Aita Juan Azurmendi. Joan dan martian, berrogetamar patroiki presentatu zirean Pasayan esamñetara; ta bat izan ezik, beste guztiak ondo urten eben. Arrezkeru ba-daukogu, Oestafrikara etorteko, lema patroyak zenbat gura. Aurrera beti, gizonak!

EUSKALDUNAK,

ESPIRITUZ

ABERATSAK?

Barku Txikiegiak



Japoitarrak: euskal arraintzaleen aurretik

Len-bere esan deusuet. Gure arraiñunziak, txikiegiak dira emengo klimarako. Bero larregi egiten dau emen, ta gure barkuak ez dira emendik ibilteko erosoak. Alper enbarkaziño batzuk bentiladore onak euki, ezin da ondo lorik egin gure bodegetan.

Domeka baten, maistraki batzuk etorri zirean portura bertoko katoliko misioneru bategaz, gure barkuak ikusten. Aitarenka geratu zirean, gure logelak ikusi zituenean. Zulo orretan egiten dabe lo arraintzaleak? galdetu eusten guztiz arrituta.

Orrezaz gaiñera, gure barkuetan gauza guztiz gatxa da garbitasuna. Beti lanean, beti atun odol tartean, dutxa barik, ur gaza eskasagaz, soifekoak ezin euki garbi. Eta garbi eukiarren, beti tximurrez beteta.

Orrexegatik, arraintzaleak portuan dagozanean edo portutik kanpora urtetan dabenean, inpresio txarra emoten dabe Amerikanen eta Afrikanen euren aurrean. Euskalerrian Galiziko arraintzaleak emoten dabena baiño txarragoa. Ori ez dago ondo. Arraintzaleak eurak ez dauke erru guztia. Baiña danok egin bear geunke alegiña, batebere arraintzaleen gurasoak eta emazteak, euskaldun izena puntu onetan ondo altu eukiteko, Afrikan, Indotxinan eta edonon.

JAPOITARRAK:

- * 28 enbarkaziñu ziran Freetownen.
 - * 1.200t. daukoz aundienak; 250t. txikienak.
 - * Untzi aundiak 90 gizon daroetz. 3 illabete ta erdian igaroten dabe itxaso barruan. Beingoan, 1.100t. inguru arraiñ ekarten dabez portura.
 - * Txikienak 26 gizon daroaz. Illabete ta erdi egoten da ur aundietan eta 130t. ekarten ditu.
 - * 28 km.-tik aurrerako palangreak daukeez. Lantxa rapidu batzuekin kezutzen dituez.
 - * Itxasoan aurrera arrantzetan dabe, eta erreztasan audiak daukeez bai arraiña atrapatuko, bai an edo emen zaltzeko.
 - * Urte bi egiten ditue Atlantikun.
 - * Radar aparatu bereziak daukeez; arraiñetarako apartekoak.
- OARRA: Datu onek 1961-62'koak dira.

EUSKALDUNAK:

- * 34 unti joan ziran Oeestafrikara: 26 Bermiotik, 6 Lekeitiotik, 1 Motrikotik, 1 Ondarrabiatik.
 - * 90t. ingurukoak dira.
 - * 16 gizon gorabera bakotxean.
 - * 155t. atrapatu ditue bakotxak, illabete ta erdian.
 - * Radarra: arraintzalien begi ona.
 - * Aurrerapenak: gure mariñel trebeen lebertasuna.
- OARRA: Datu onek 1963-koak dira.

Afrikako atunetea, gogorra da. Guztiz gogorra. Orrexegaitik, bein lau illabete igaro ezkerro, arraintzaleak aspertuten asten dira, gogaituten, mingostuten, garratzuten, errimiña gero ta geyago sentitzen.

Euren meritu izugarria da. Kendu daigun txapela euren aurrean; eta lagundu deyoegun, bakotxak al dayan moduan, euren bizimodua leunduten, bigunduten, gozatuten.